

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2013-KO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Joan den uztailaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA), bere Erakunde Autonomoaren (Uliazpi) eta bere sozietate publikoen (IZFE, Bidegi eta ITTEN) Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiari dagokiona.

Txostenak adierazi du bai Aldundiak, bai Uliazpik eta bai 3 sozietate publikoek **zuzentasunez bete dutela ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia**, nahiz ez-betetzeak azaleratu diren Aldundian eta Bidegin.

Aldundiari dagokionez, ez-betetzeetako bi **sarrera fiskalen kudeaketari** dagozkio. Batetik, atzeraldiak izan dira 2013ko itxieran zerga zorrak geroratzeko 53 eskabide ebaztean (ez da ordainketa planik zehaztu eta ez dira dagozkion bermeak eskatu). Horrezaz gain, zorra geroratua zuen zordun bati 1,4 milioi euro ordaindu zaizkio itzulketa kontzeptuan, kopuru hori zorra kitatzeko baliatu beharrean.

Aldundiko **langile** gastuei dagokienez, Epaitegiak ez-betetze modura jaso du borondatezko erretiro sariak eta sustatutako uko egiteagatiko kalte-ordainak PFEZatik salbuetsita aitortzea bideratzen duten arrazoiak eta inguruabarrak gertatzen direla ez egiaztatu izana, 2013an GFAko guztira 20 langileri ordaindutakoak. Bidegin hiru langileren kaleratzea bidegabeko jo zuen epai batek eta honenbestez, haien kontratuetan aurreikusitako kalte-ordainak ordaindu behar izan zitzaizkien. Gainera, sozietateak langile bat kontratatu zuen izaera mugagabearekin, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatu gabe.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, Epaitegiak lege-haustek azaleratu ditu GFAk izapidetutako 8 kontratutan (kontratu bat jada prestazioa egikaritu zenean izapidetu zen eta 7 ez ziren prozedura irekia baliatuta izapidetu, balioaren arabera zegokiekeen moduan) eta Bidegik 3 zerbitzu kontratatzean (kontratu 1 iraungipen dataz haratago egikaritu zen eta 2 zerbitzu kontratazio, hainbat kontratu txiki bidez).

Diru-laguntzei dagokienez, HKEEk adierazi du Aldundiak 16 erakunderi guztira 3,3 milioi euroren zenbatekoan diru-laguntza zuzenak eman zizkiela, zuzeneko emakida

egitea justifikatuko duten legerian aurreikusitako arrazoiak gertatu zirela behar hainbat justifikatu gabe.

Gainera, Bidegiren epe luzeko zorpetzeak 36,4 milioi euroan gainditu zuen 2013rako GLHaren Aurrekontu Orokorretan onartutako gehienezko muga, 850,4 milioi eurorena zena.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEK aldeko iritzia plazaratu du kasu guztietan, hainbat salbuespen jakin azpimarratu baditu ere GFaren Kontu Orokorrean eta ITTENen Urteko Kontuetan. Bada, txostenak kontularitzako hainbat doiketa jaso ditu, GFaren Diruzaintza Geldikina 2,2 milioi euroan murriztuko luketenak. Kontu Orokorrak ez du hartutako konpromisoek sortzen duten kontingentziari buruzko informaziorik, Pasaiako Portuko Agintaritzak Jaizkibia, SAri erreklamaturako zorrari dagokionez. Gainera, HKEEK ezin egiaztatu izan du ibilgetuko hainbat kontu-sailen kostua eta amortizazioa, horien xehapenik ez izateagatik. ITTENi dagokionez, Epaitegiak azpimarratu du ez dagoela izakinen gaurkotutako baloraziorik.

Finantza egoerari bagagozkio, Epaitegiak nabarmendu du zerga bilketa berreskuratu egin dela eta gastu arruntei ez ezik, zorpetzearen igoerari eutsi egin zaiola, bai GFAn bai Bidegin. Halaber, egiazko inbertsioen gorakada sumatu da, ekonomia suspertzeko jarduerak eta inbertsio proiektuak garatzeko Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien artean izenpetutako erakunde-arteko erabakiaren indarrez eskuratutako finantzaketa bidez konpentsatutakoa.

Txostenak ondorioztatu du GFAk 2013an **aurrekontuaren egonkortasuna** eta **gastuaren araua** bete dituela.